

JOKABIDE
K O D E A

BATZGROUP

1. SARRERA
2. APLIKAZIO EREMUA
3. KODEAREN APLIKAZIOA, ZABALKUNDEA ETA JARRAIPENA
4. GURE PROIEKTUA. XEDEA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK
5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI DAGOZKION ARAU OROKORRAK
 - 5.1. PERTSONAK
 - 5.2. KONPROMISOA INGURUNEAREKIN
 - 5.3. HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA USTELKERIAREN KONTRAKO POLITIKAK
 - 5.4. HIRUGARRENEKIKO HARREMANAK
 - 5.5. INFORMAZIOAREN KUDEAKETA
 - 5.6. JABETZA INDUSTRIAL/INTELEKTUALAREN BABESA. ENPRESAREN AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ARDURATSUA
 - 5.7. BATZ TALDEAREN IRUDIAREN ETA OSPEAREN SUSTAPENA

1. SARRERA

Jokabide Kode hau BATZ Taldearen Antolaketa eta Kudeaketa Ereduaren (Compliance Program) baitan dago.

Jokabide Kodearen helburua da BATZ Taldean dagoeneko badagoen enpresa-kultura finkatzea.

Kode honen betetzea elkarlanean, konfiantzan eta errespetuan oinarritzen da, hala nola BATZ Taldearen ordezkari guztien eta harekin harremana duten hirugarrenen arteko komunikazio ororen konfidentziasunean.

BATZ Taldeak hainbat arau, jarraibide eta prozedura ditu Kode hau garatzeko, eta BATZ Taldeko Pertsona bakoitzak haiek ezagutzeko eta betetzeko erantzukizuna dauka.

BATZ taldeak zainduko du Jokabide Kode honetan ezarritako Balioak eta Printzipio Etikoak benetan eta modu eraginkorrean beteko direla, eta urraketak eta hobetzeko arloak Betetze Batzordeak kudeatuko ditu.

2. APLIKAZIO EREMUA

Jokabide Kodea BATZ Talde osoan bete beharrekoa da, maila OROKORREAN, alde batera utzi gabe hemen deskribaturiko

gutxienerako eta nahitaez bete beharreko baldintzak sendo ditzaketen tokiko legeriei zor zaien errespetua

**NATURALLY
GLOBAL**



A U T O M O T I V E



BATZ Taldeak gutxiengoaz parte hartzen duen sozietateetan, dagokien zuzendaritza-organismoak proposatuko zaie Jokabide Kode honen eduki bera edo antzekoa izango duen beste bat onartzea.

2. APLIKAZIO EREMUA

Nori aplikatzen zaio Kodea

BATZ Taldeko pertsona guztiei, barne hartuta BATZ, S. Coop.-en Kontrolpeko Sozietateak, eta, ahal den neurrian, Hornitzaileei, Bazkideei eta Bezeroei.

Kodearen zabalkundea

Jokabide Kode honen berri emango zaie BATZ Taldera heldu berri diren Pertsona guztiei, horretarako ezarritako Harrera Planaren bitartez. Jokabide Kodea onartzean dagoeneko Langileak direnei intranet bidez helaraziko zaie, edo berriaz prestatutako dokumentazioa banatuko zaie. Hirugarrenei edo interes-taldeei dagokienez, webgunearen edo berriazko argitalpenen bidez helaraziko zaie Kodea. BATZ Taldearen Kontrolpeko Sozietate bakoitzeko Gerentziaren erantzukizuna izango da Jokabide Kodearen zabalkuntza benetan egin dela ziurtatzea.

Kodearen Balioa BATZ Taldeko pertsona guztientzat

Pertsona guztiek ezagutu eta bete behar dute Jokabide Kodea, eta denek izan beharko dute Kodean jasotako Balioen eta Printzipio Etikoen arabera jokabidea.

Jokabide Kodea ezagutzea eta betetzea bereziki eskatuko zaie Zuzendaritza Batzorde, Artezkaritza Kontseilu, Kontseilu Sozial, Zaintza Batzorde eta Betetze Batzordeko kideei.

Jokabide Kodearen Balioa Hornitzaileentzat

BATZ Taldearen hornitzaileek nahitaez bete behar dute Jokabide Kode hau. BATZ Taldeak beretzat gordeko du Jokabide Kode hau betetzen ez duten hornitzaileekin edozein kontratu amaitzeko eskubidea.

3. KODEAREN APLIKAZIOA, ZABALKUNDEA ETA JARRAIPENA

Indarraldia

Kode hau indarrean dago BATZ, S. Coop.-eko Artezkaritza Kontseiluak onartu zuenetik, hau da, 2017ko martxoaren 24tik, eta indarrean egongo da indargabetzeko esanbidezko akordioa egin edo ordezkoko beste bat indarrean sartu ezean.

Halere, Jokabide Kode hau dinamikoa da, eta egokitzea, eguneratzea, aldatzea eta garatzea aurreikusten da.

Hobetzeko iradokizun, zalantza edo kritika oro Betetze Batzordeari jakinarazi behar zaio, bera baita Jokabide Kode hau egoki betetzen dela zaintzeko organo eskuduna.

Jokabide Kodearen interpretazioa

Jokabide Kode hau eta BATZ Taldearen Compliance Programen baitako edozein protokolo bat ez baletoz, Jokabide Kodea gailenduko da. Era berean, Protokoloak Jokabide Kodearen izaera eta xedearen arabera interpretatuko dira.

Betetze Batzordeari dagokio Jokabide Kodearen edukien interpretazioa egitea eta sor litezkeen zalantzak argitzea. Haren interpretazio-irizpideak hartzaile guztiek onartu behar dituzte.

Betetze Batzordea

BATZ Taldeko Betetze Batzordeak, Betetze Zuzendaritza (Compliance Officer) mahaiburu dela, eskumena du betetze-funtzioaren berezko arlo guztietan.

Betetze Batzordeak sortzen eta proposatzen du Jokabide Kode honen edukia, bai eta BATZ Taldearen Compliance Program osatzen duten Protokolo guztiak ere; behin BATZ, S. Coop.-eko Errektore Kontseiluak onartuta, Pertsona guztiek bete behar dituzte.

Urraketa eta Kanal Etikoari jakinarazpena

Jokabide Kode hau ez betetzeak Compliance Program urratzea dakar, eta lan- edo sozietate-mailako zigorrak eragin ditzake, dagozkion zigor administratibo edo penalak alde batera utzi gabe.

Jokabide Kodea errazago betetzeko, Kanal Etiko bat dago, konfidentziala eta barne-mailakoa, zeinaren bidez:

- Jokabide Kodearen interpretazioari edo aplikazio praktikoari buruzko balizko zalantzak kudeatzen diren.
- Kode honen balizko arau-haustek jakinarazten diren.

BATZ S. Coop.-eko Pertsona orok Jokabide Kode honen edo berau garatzen duten Protokoloen Hobekuntza Arlo bat edo Arau-hauste bat ezagutuz gero, zuzenean jakinarazi beharko dio Betetze Zuzendaritzari, Kanal Etikoaren bidez. Urraketa baten berri izanda berau ez jakinaraztea Jokabide Kodearen arau-haustetzat joko da.

Legeriaren, Jokabide Kodearen edo berau garatzen duten Protokoloen arau-haustearekin loturikoak ezkutatzea ez da joko BATZ Taldearen intereserako ekintzatzat.

Betetze Zuzendaritzari jakinarazi beharrekoak bitarteko hauetako baten bidez helaraziko zaizkio:

- **BATZeko intranetean dagoen Kanal Etikoaren bitartez.**
- **Gutuna bidalita helbide honetara:**

Betetze Zuzendaritza

BATZ S. Coop.

Torrea, 2

48140 IGORRE (Bizkaia)

Jakinarazpen-egileari Kanal Etikoari jakinarazitakoarekin lotutakoaren aurrerapenen berri emango zaio.

3. KODEAREN APLIKAZIOA, ZABALKUNDEA ETA JARRAIPENA

Komunikazioen konfidentzialtasuna eta errepresaliak hartzeko debekua

BATZ Taldeak konfidentzialtasuna bermatzen die Kanal Etikoari jakinarazpenak egiten dizkieten Pertsonen, beren nortasunari dagozkionez.

Kanal Etikoarekin loturiko jakinarazpen eta prozedura guztiak datu pertsonalen araudiari dagozkion eskakizun guztiak beteta kudeatuko dira.

Debekatuta dago jakinarazpen bat egiteagatik Pertsona baten kontrako edozein neurri hartzea, errepresalia edo edozelako ondorio negatiboa dakarkiona. Jakinarazpena egin duenaren aurkako errepresalia Jokabide Kode honen urraketatzat joko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako debekuak ez du eragotziko diziplina-neurriak hartzea, hala badagokio, barne-ikerketak erabakiz gero jakinarazpena gezurrezkoa dela eta fede txarrez egin dela.

Kanal Etikoaren Prozedura

Betetze Zuzendaritzak erregistratu egingo ditu Kanal Etikoaren bitartez jasotako jakinarazpen guztiak.

Jakinarazpen bat jasotakoan, Betetze Zuzendaritzak aginduko dio Betetze Batzordeari barne-ikerketa hasteko, salbu eta,

Betetze Zuzendaritzaren iritziz, jakinarazpenak nabarmenki ez badu funtsik edo Jokabide Kodetik eta, badagokio, Protokoloetatik aparteko gaiei buruzkoa baldin bada. Kasu horietan, Betetze Zuzendaritzak dagokion jakinarazpen-erregistroan adierazi beharko du jakinarazpena jasota ikerketarik ez abiatzea erabaki duela. Erabaki horrek ez du eragotziko geroago ikerketa egitea, informazio gehigarria jaso balitz.

Barne-ikerketan, Betetze Batzordeak egoki deritzon informazio eta dokumentazio guztia bildu ahal izango du, BATZ Taldeko atal edo negozio guztiekin lotuak.

Abiatutako edozein prozedura Betetze Batzordearen ebazpen batekin bukatuko da, zeinetan proposamen bat egingo duen, hala badagokio, BATZ, S. Coop.-eko Artezkaritza Kontseiluak onar dezan.

Jakinarazpena Betetze Batzordeko kide bati buruzkoa baldin bada, hark ezingo du parte hartu izapidetzean, eta Jokabide Kode honen 5.3 atalean aurreikusitako Interes Gatazkari buruzko arauak aplikatuko dira.

Proposamen horretan, dagozkion neurriak ezarriko dira, lan-legeriaren, Barne Araudiaren eta Pertsonen aplikagarriak zaizkien gainerako gizarte- eta lan-arauen arabera, alde batera utzi gabe, hala badagokio, izan litezkeen zigor administratibo edo penalak.

4. GURE PROIEKTUA. XEDEA, MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

GURE BALIOAK

KONPROMISOA
ETA KONGRINTZIA

POSITIBOTASUNA

PENTSAMOLDE
OROKORRA

BEZEROA
JOMUGA

BERRIKUNTZA

PERTSONEN
GASAPENA

TALDE-LANA

LORPENA
JOMUGA

OINARRIAN EDUKITA

GURE MISIOA

Industria-talde globala gara, mugikortasunaren sektoreari irtenbide espezializatuak eskaintzen dizkiona, ezagutzan, teknologian eta berrikuntzan oinarrituta. Horrela, modu jasangarrian eta elkarlanean hazten gara, pertsonetikiko konpromisoan, gure bezeroekiko lankidetzan eta ezagutza, ekimen- eta berrikuntza-ekosistemetan parte hartze aktiboan oinarrituta.

GURE IKUSPEGIA

BATZeko partaide izateaz harro dauden pertsonak osatutako industria-proiektu jasangarria izatea. Horrela aitortua eta ezagutua den taldea:

- Irtenbide eraginkorrak, berritzaileak eta ekologikoak eskaintzen dituen konfiantzazko partnerra.
- Eragile aktiboa, gardena eta gizartearekin inplikaturik.
- Erakunde arina, konektatua eta kolaboratiboa.

ZERTARAKO?

GURE XEDEA LORTZEKO

Elkarrekin mundu hobea eraikitzea, mugikortasun-konponbide global, berritzaile eta Jasangarrien bidez

BALIOAK

BATZ Taldea osatzen duten Pertsonak balio hauetan sinesten dute:

Pentsamolde Orokorra

Enpresaren ikuspegi orokorra oinarri izanda jarduteko eta jokatzeko gaitasuna da, beti ere, enpresaren negozio, kultura zein genero anitzeko izaera aintzat hartuta. Enpresaren beharrak erantzuteko gaitasuna eskatzen du horrek, aipatu ikuspegi orokorretik eta kultura aldetik pertsona guztiei begirunea erakutsiz, inolako diskriminaziorik egin gabe: ez

arrazagatik, ez erlijio, sexu, adin, nazionalitate, sexu-orientazio, genero-identitate, egoera zibil, desgaitasun ezta bestelako arrazoiak direla eta diskriminatua izan daitekeen egoerengatik ere.

Bezeroa jomuga

Bezeroaren (barnekoa/kanpoko) beharrak ezagutzeko eta asetzeko ahalegina egiteko, interesa agertzeko, proaktibo agertzeko eta prest egoteko gaitasuna da, konfiantzazko harremanak eginda eta harreman horietan BATZ Taldearen interesak babestuta.

Pertsonen
Garapena

Lorpena
jomuga

Talde-lana

Bezeroa
jomuga

BALIOAK

Berrikuntza

Pentsamolde
Orokorra

Konpromisoa
eta
Koherentzia

Positibotasuna

4. GURE PROIEKTUA. XEDEA, MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

Lorpena jomuga

Ahaleginak ezarritako helburuak eta emaitzak lortzera bideratzeko gaitasuna da, erabaki garrantzitsu eta beharrezkoak hartzeko orduan azkar jokotuta eta ezarritako prozesuak egoki kudeatuta. Emaitzak erdiestera bideratutako jokabidea da, estandarretatik haragoko erronkak ezarrita, erakundeari balioa eransteko eta etekin-mailak hobetzeko, erakundearen estrategien baitan.

Berrikuntza

Joera edota egoera berrien aurrean pentsamolde irekia izateko, aurrea hartzeko eta malgutasunez jokatzeko gaitasuna da, merkatuko aukerei eta mehatxuei dagokienez ikuspegi edo planteamendu berritzaileak moldatuta. Berekin dakar irtenbide berriak eta desberdinak asmatzea lanpostuak berak, erakundeak, Bezeroek edo dagokion sektoreak izan ditzakeen arazoak edo egoerak konpontzeko.

Talde-lana

Beste pertsona batzuekin lan egiteko gaitasuna da, aktiboki parte hartuta denen xedea lortzeko eta errespetuzko, konfiantzazko, komunikaziozko, partaidetzazko eta inplikaziozko giroan. Berekin dakar pertsonen arteko harremanak erraz egiteko gaitasuna, hala nola norbere ekintzek taldearen ekintzen arrakastan duten eragina ulertzeko. Laguntza

ematea ere badakar, nahiz eta laguntza horren helburua ez egon zuzenean lotuta norbere intereseko helburu bat betetzearekin.

Positibotasuna

Eguneroko gertakizunei ahalik eta alderdi onuragarrienetik begiratzeko gaitasuna da, arazoei norbere edo erakundearen ahalmenetan konfiantza izanda aurre egitekoa, aukerak ikustekoa eta zailtasunei ilusioz eta baikortasunez heltzekoa.

Pertsonen Garapena

Norbere hazkuntza eta garapen profesionalean lan egiteko gaitasuna da, bai eta taldeko pertsonen garapena ahalbidetzeko eta hobetzeko eta haien ahalmena ezagutzen eta erdiesten laguntzeko etengabeko ahalegina egitekoa. Berekin dakar pertsonen parte-hartzea bultzatzeko komunikaziozko, entzutezko eta errespetuzko giroa garatzeko ahalegina egitea, ondo egindakoak aitortzeaz batera.

Konpromisoa eta Koherentzia

Enpresaren proiektu orokorra gauzatzeko aktiboki eta ahalegin garrantzitsuak eginez parte hartzeko nahia da, nork bere erantzukizunak bere gain hartuta. Berekin dakar partekaturiko enpresa-proiektu bateko kide izateko harrotasuna, hala nola erakundean definituriko balioekin bat egitea eta horien arabera jokatzeko.

Balio hauekin lotuta, BATZ TALDEaren nortasunaren ezaugarri dira, halaber, CORPORACION MONDRAGONen baitan garaturiko Kooperatiba Balioak.

Era berean, eta gure Xedearen, Misioaren, Ikuspegiaren eta Balioen arabera, gure ekimenak Agenda 2030ekin eta bertan jasotako Garapen Iraunkorrerako Helburuen betetzearekin bat datoz.

5. PRINTZIOPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5.1. PERTSONAK

BATZ Taldeak Giza Eskubideen Adierazpeneko oinarrizko printzipioak aintzatesten ditu, Nazio Batuek 1984an ezarritako definizioarekin bat eginda.

Laneko Segurtasuna eta Osasuna

Konpromisoa dugu BATZ Taldeaosatzen duten Pertsonen, hala nola Hornitzaileei, Bazkideei eta Bezeroei lan-giro seguru eta osasungarria eskaintzeko, bai prozesuetan, bai instalazio eta zerbitzuetan.

BATZ Taldearen lantokietan lan egiten duten Pertsona guztiek betebeharra dute BATZ Taldeak ezarritako arauak ezagutzeko eta betetzeko, bai eta baliabideak erabiltzeko ere, laneko segurtasun eta osasunari dagokionez, modu seguruan eta arduratsuan, lan-arriskuak prebenitzeko eta minimizatzeko xedez.

Nahitaezko lana agintzeko debekua eta kontratazio-politika

BATZ Taldeak ez du inolako behartutako edo nahitaezko lanik onartzen, LANEren Oinarrizko Lan Arauekin bat etorruta.

BATZ Taldeak ez du onartzen, ez zuzenean ez zeharka, Pertsonen borondatea mehatxuen, zigorraren, pribazioen, esklabotza edo erdi-esklabotza erako formularen edo Giza Eskubideen beste edozein urraketa bidez behartuta lorturiko lana.

BATZ Taldeak uko egiten dio bere merkataritza-jardueretan edozein motatako behartutako edo lege kanpoko lanaz baliatzeari.

BATZ Taldeak:

- Ez du indarrik erabiliko ⁽¹⁾.
- Ez ditu behartuko bere langileak behartutako lanak edo esklabo-lanak egitera.

BATZ Taldearen kontratazio-politika bat dator indarrean den legeriarekin, eta barne hartzen du, haren arabera, gizarte-babeserako eskubidea dakarren guztia, lan egonkor eta kalitatezkoarekin konpromisoa adierazten duen guztia eta bizi-maila duina asetzeko soldata-politika ezarriko duen guztia.

BATZ Taldeak Pertsonen itxaropenak

eta beharrak artatzen ditu, haien bizitza pribatuaren eta profesionalaren artean oreka egokia lortu nahian, hartzen diren neurriek erakundearen lehiakortasuna ez kaltetzeko moduan eta arreta berezia eskainita mendeko pertsonen zaintzari dagozkion pertsonen betebeharrei.

Pertsonen trafikatzeko debekua eta atzerriarren babesa

BATZ Taldeak bere gain hartzen du atzerriarren babesa, atzerriartasunari buruzko dagozkion araudia beteta.

BATZ Taldeaosatzen duten Pertsonen ez dute laguntzarik emango Europar Batasuneko Estatu bateko herritarra ez den pertsona bat Estatuan gera edo bertatik igaro dadin, baldin eta horrela atzerriarrak sartzeari eta igarotzeari buruzko lege aplikagarria urratzen bada.

Atal honekin loturiko gertakariaren bat sumatuz gero, Betetze-batzordeari jakinaraziko zaio, arrazoiak azter eta dagozkion ekintza zuzentzaileak nahiz prebentzio-neurriak zehatz ditzen.

Haurren lanaren debekua eta adingabeen babesa

Adingabeen babesa BATZ Taldearen Printzipio Etiko bat da, haurren lanera ez jotzea dakarrena. Lan-mota hori adingabeei beren haurtzaroa, ahalmena eta duintasuna galarazten dizkiena da, beren garapen fisiko eta psikologikoa kaltetzen duena.

Orobat, haurren lantzat joko da lan egiteko legeko gutxieneko adina bete ez duten adingabeak enplegatzea. BATZ Taldeak bermatuko du 18 urte bete ez dituzten legeko langile gazteek ez dutela gauzez edo aparteko orduetan lanik egiten, eta beren osasun, segurtasun edo garapenerako kaltegarriak diren lan-baldintzetatik babestuta daudela, gutxieneko adinari buruzko 1973ko Hitzarmenaren (138. zk.) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen 2012/C 326/02 Gutunaren arabera.

(1) Behartutako lantzat jotzen da zigortzeko edo ondasunak (NANa, pasaporte, etab.) konfiskatzeko mehatxupean egiten den lan oro, pertsonak bere borondatez egiten ez duena.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

BATZ Taldeak ez ditu adingabeak kontratatuko⁽²⁾ Gure lantegietan adingaberen bat dagoela sumatuz gero, Betetze-batzordeari jakinaraziko zaio, dagokion kontratua deusezta dezan eta, halaber, arrazoiak azter eta dagozkion ekintza zuzentzaileak nahiz prebentzio-neurriak zehatz ditzan.

BATZ Taldeak bermatuko du langile gazteen zereginek ez dutela eragozten haiek eskolara joatea, eta langile gazteen lan- eta eskolatzedenbora, guztira, 10 ordutik beherakoa izatea errespetatuko da.

Berdintasuna eta lan-giro adeitsua

BATZ Taldearen helburua da lan-giroan konfiantza eta elkarrekiko begirunea nagusitzea; horretarako, Pertsona guztiek sustatuko dituzten harremanak, maila profesional guztietan, oinarrituko dira elkarrekiko begirunean, zintzotasunean, adeitasunean, konfiantzan eta talde-lanaren baitako laguntzan eta ahaleginean, lan-giro adeitsua sortuta lankideen, zuzendarien eta hauen mende dauden pertsonen artean, lan-giro positiboa lortzeko.

Lanean ez dira inola ere onartuko eta toleratuko errespetu eza, iraina, difamazioa, larderia, abusua, jazarpena edo edozein eraso psikologiko, fisiko edo sexual.

Gure hautaketa-politika zorrotza eta objektiboa da, eta hautagaien meritu akademiko, pertsonal eta profesionalak besterik ez dugu kontuan hartzen, bai eta BATZ Taldearen beharrak ere.

BATZ Taldearen prestakuntza-programek aukera-berdintasuna eta lan-ibilbidea garatzeko berdintasuna bermatzen dute, eta aktiboki laguntzen dute Taldearen xedeak lortzen. Era berean, lan-esparruan gora egitea Pertsonen merituari, gaitasunean eta norbere lanean oinarritzen da.

Aurrekoaren arabera, espresuki konprometitzen gara inor ez diskriminatzera bere arraza, erlijio, sexu, nazionalitate, sexu-orientazio, genero-

identitate, egoera zibil, desgaitasunagatik edo diskriminazioa eragin dezakeen beste edozein arrazoigatik.

Elkartzeko askatasuna, negoziazio kolektiboa eta kanpo-jarduerak

BATZ Taldeak erakundea osatzen duten Pertsonen gizarte-jarduerak eta jendaurrekoak errespetatzen ditu, betiere beren jarduera profesionalean eragiten ez badute.

BATZ Taldeak, lan-arloan, sindikatzeko eskubidea, elkartzeko askatasuna eta negoziazio kolektiboa errespetatzen ditu.

Pertsonak alderdi politikoekin edo helburu publikoak dituzten beste entitate, erakunde edo elkarte batzuekin duten harremana harreman pertsonala dela argi eta garbi geratzeko moduan garatuko da, BATZ Taldearekin lotuta-mota oro saihestuta.

Pribatutasuna, datu pertsonalen erabilera eta konfidentzialtasuna

BATZ Taldeak Pertsonen intimitate-eskubidea errespetatzen du, eskubide horren baitako adierazpide guztietan, hala nola Internet eta gainerako komunikabideen bidezko Pertsonen komunikazio pertsonalak. Bereziki, datu pertsonalen pribatutasuna eta konfidentzialtasuna errespetatuko dira. Datu pertsonalak soilik eskuratuko dituzte enpresako langile jakin batzuek, behar bezala baimenduta eta Konfidentzialtasun Akordioa sinatuta.

Ondorioz, BATZ Taldeak konpromisoa hartzen du datu pertsonalak ez zabaltzeko, salbu eta interesdunek baimena ematen badute eta legeak agintzen duenean edo ebazpen judizial edo administratiboak bete behar direnean. Datu pertsonalak inola ere ez dira erabiliko legeak edo kontratu bidez aurreikusitako xedeen bestelako helburuetarako.

(2) Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE - ILO) lanerako gutxieneko adinari buruzko 1973ko Hitzarmenaren arabera, 15 urtetik beherako pertsona oro haurtzat joko da, tokiko legeek adin handiagoa edo nahitaezko eskolatzeari ezarritako dutenean salbu; orduan, adinik handiena aplikatuko da. Tokiko legeriek 13 eta 15 urte bitarteko edo 12 eta 14 urte bitarteko pertsonak lan egitea baimen dezakete, baldin eta betetzen dituzten zereginak: Ez badute kaltetzen adingabearen osasuna edo garapena; eta Ez badute eragozten eskolara edo prestakuntza-programetara joatea.

5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5.2. KONPROMISOA INGURUNEAREKIN

Ingurumena

BATZ Taldeak konpromisoa dauka bere Jardueraren ingurumen-inpaktua minimizatzeko. Hori dela eta, ingurumen-kudeaketarako sistemak ditugu, legeria betetzen dela eta prozesuen etengabeko hobekuntza ziurtatzeko.

Pertsonak, nork bere eskumenen esparruan, ahalegina egin beharko dute BATZ Taldeak haien eskura jarritako instalazioen, aktiboen eta baliabideen erabileraren ondoriozko ingurumen-inpaktua minimizatzeko, eta aktiboki eta modu arduratsuan egin behar dute ingurumenaren kontserbazioaren alde.

Bereziki, (i) Ingurumenari buruz haien lantokian indarrean dauden arauak, aginduak eta prozedurak ezagutu eta bete behar dituzte, eta (ii), norbere ardurapeko arloan eta BATZ Taldearen politikekin bat eginda, ahalegina egin behar dute ingurumen-ikuspegitik instalazioetako baldintzak hobetzeko eta ingurumenarekin loturiko kontuak eraginkortasunez kudeatzeko.

Bizimodu osasungarria

BATZ Taldeak bizimodu osasungarria sustatzen du enpresako Pertsonen artean, bereziki lan-prebentziorako zerbitzuaren eta ISO 45001:2018 ziurtagiriaren bitartez



5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5.3. HERRI ADMINISTRAZIOAK ETA USTELKERIAREN KONTRAKO POLITIKAK

Agintariekin, Erakunde Arautzaileekin eta Herri Administrazioekin izan beharreko harremanak lankidetzaz eta gardentasun-printzipioetan oinarrituko dira.

BATZ Taldeak Herri Administrazioekin dituen betebeharrak beteko ditu, bereziki Herri Ogasunarekin, Gizarte Segurantzarekin eta diru-laguntzak ematen dizkietenekin.

Ustelkeria

BATZ Taldea ustelkeria-mota ororen kontra dago, bai eta etekin edo abantailaren bat lortzeko BATZ Taldetik kanpoko pertsonengan legez kontra eragitearen aurka ere. Estortsioa eta eroskeria espresuki debekatuta daude, legez kanpoko edozein abantaila-mota zuzenean edo zeharka eskaintzea edo hitzmatea barne, eta influentzia-trafikoa ere debekatuta dago.

Horrenbestez, Pertsonen jokatu beharko dute, estatuko zein hirugarren herrialdeetako Herri Administrazioekin eta nazioarteko erakundeekin dituzten harremanetan, inola ere ez bultzatzeko moduan norbanako, agintari edo funtzionario publiko bat bere inpartzialtasun-betebeharrak edo edozein legezko agindu urratzera.

Ezingo da ordainketarik egin izapideak errazteko edo arintzeko, ez dirua emanez, ez beste edozein gauza baliotsu eskainiz, edozein izanda ere objektu horren balioa, edozein organo judizial, herri-administrazio edo erakunde ofizialen aurrean izapide edo egintza bat ziurtatzearen edo arintzearen truke.

Atal honetan ezarritako debekuek dagokion norbanako, agintari edo funtzionario publikoarekin ahaidetasunak edo adiskidetasunak hertsiki loturiko pertsonen ere eragiten diete.

Opari-politika

Oparien xedea da BATZ Taldearen markarudia sustatzea. BATZ Taldea osatzen duten zuzendariak eta gainerako Pertsonen ezingo dituzte eman, eskatu edo onartu, zuzenean edo zeharka, opariak, gonbidapenak, mesedeak edo ordainak, eskudirutan edo espezieetan, edozein motatakoak izanda ere, legez kanpoko edo Jokabide Kode honen kontrako helburuak lortzeko.

Balio ekonomiko mugatuko opariak onartuta daude, betiere ez baldin badira eskudirutan ematen; esate baterako: balio gutxiko propaganda-objektuak, adeitasunezko opariak edo izaera sozialeko noizbehinkako oparitxoak, Gabonetako opariak, kasu.

Edozein gonbidapen, opari edo detaile, zeina bere maiztasunagatik, ezaugarriengatik edo egoeragatik hartzailearen objektibotasunean eragiteko borondatez egintzat jo daitekeen, ez da onartuko edo itzuli egingo da, eta zuzeneko arduradunari eta Betetze Batzordeari ahalik eta azkarren jakinaraziko zaie. Arrazoizko moduren batean itzultzea ezinezkoa balitz, Giza Baliabideen Sailari emango zaio eta honek, dagokion jasotze-agiria eman eta BATZ Taldearen oparien inbentarioan jaso ostean, gizarte-intereseko helburuetara bideratuko du.

Esportazioak

Esportazioen kontrolaren esparruan, ondasunen mugaz gaindiko trukea agintarien debekuen, murrizketen eta onarpenen mende daude, edo beste ikuskapen-neurri batzuen mende.

Inportazio- eta esportazio-jardueretan, BATZ Taldeak ondasunen, zerbitzuen eta informazioaren inportazioari eta esportazioari buruzko arau guztiak betetzen ditu, bai aplikatu beharreko legeriak ezarritakoak bai BATZ Taldearen barne-araudiak eta gainerako eragileen kanpo-araudiak ezarritakoak, eta Taldearen hornitzaile guztiek nahitaez bete behar dituzte.

Erabat debekatuta dago kasuan kasuko herrialdeetako zehapen-zerrenda ofizialetan agertzen diren pertsona edo enprekin negozioak egitea, entrega-prozesua edozein izanda ere. Kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduketak espresuki debekatuta daude.

Ondasun eta zerbitzuen inportazioari eta esportazioari buruzko erabakiak hartzerakoan, behar bezala aztertuko da erabaki hori esportazioen kontrolaren mende egon daitekeen. Zalantzarik izanez gero, Eragiketen Zuzendaritzari aholku eskatuko zaio.

5. PRINTZIOPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

Piezen faltsifikazioaren prebentzioa

BATZ Taldeak metodo eraginkorrak eta prozesu egokiak garatzen, ezartzen eta mantentzen ditu bere produktuetan faltsifikatutako piezak eta materialak txertatzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.

Diru-laguntzak

BATZ Taldeko edozein sozietateren diru-laguntza eskaerak Taldeko Finantza Sail Korporatiboak gainbegiratu ditu beti, araudia zuzen betetzen dela egiaztatzeko, kudeaketarako kanpo-aholkularitza jasota, eta diru-laguntzok egoki zuritzen direla ziurtatzeko, kanpo-ikuskapenen bitartez.

Herri Administrazioei eskatutako edo haietatik jasotako laguntzak egoki erabiltzen direla bermatuko da, haiek lortzeko baldintzak faltsutu edo xede zuten helbururako ez beste baterako erabili gabe.

Kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako prebentzioa

BATZ Taldeak kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren gaineko estatuko eta nazioarteko legeriak beteko ditu, aplikagarri zaizkionak.

Horri begira ezarritako bezeroak ezagutzeko, informaziorako eta barne-kontrolerako neurriak aplikatuko dira, eta ahalik eta laguntza handiena emango zaie agintaritza eskudunei.

Delituzko edo legez kanpoko jardueretatik eratorritako kapitalak zuritzeko edo terrorismoa finantzatzeko eragiketak egin daitezten prebenitzeko eta saihesteko, Pertsonak arreta bereziz prebenitu beharko dituzte aipatu legez kanpoko ekintzekin lotuta egon litezkeen jokabideak.

Interes Gatatzak

BATZ Taldearen aburuz, enpresa osatzen duten Pertsonekin izan beharreko harremana leialtasunean oinarritu behar da, enpresan denek dituzten interesetatik eratorritako horretan. Ondorioz, Pertsonak Interes Gatatzak oro ekin behar dute.

Gatazka Interesa sortuko da Pertsonaren baten interes pertsonalak eta BATZ Taldearenak talka egiten dutenean, edo batarenak besteari kalte egiten edo desitxuratu duenean. Interes pertsonala egongo da kontuak zuzenean eragiten dionean Pertsonari edo berarekin loturiko beste bati.

Pertsonarekin loturiko pertsonatzat joko dira haren ezkontidea edo afektibotasun-harreman baliokidea duena; aurrekoak, ondorengoak eta Pertsonaren edo ezkontidearen (edo afektibotasun-harreman baliokidea duenaren) anaia-arrebak; hala nola sozietateak eta enpresak zeinetan Pertsona edo berarekin lotutako pertsonak kontrol-egoeran dauden edo administrazio- edo zuzendaritza-kargu bat betetzen duten, edo zuzenean edo zeharka eragin esanguratsua⁽¹⁾ dutenean sozietate edo enpresa horien finantzaketa -eta eragiketa-erabakietan.

Interes Gatatzak duen Pertsonak ahalik eta azkarren jakinaraziko dio gatazka eragiten duen interesaren esparruaren zuzeneko arduradunari. Gatazka Interesa ote dagoen zalantza edukiz gero, Betetze Batzordeak ebaziko du. Era berean, Interes Gatatzak duen Pertsonak ez du esku hartuko edo eragingo Interes Gatatzaren ondoriozko erabakietan, eta ez du parte hartuko erabaki horiez hitz egiteko bileretan, ez eta eskuratuko ere Interes Gatatzak horrekin loturiko Informazio Konfidentziala.

Jarduera politikoa

BATZ taldeko edozein Pertsonak du eskubidea bere izenean kontu politikoetan parte hartzeko, baina beraren partaidetza politikoak ez du inolako loturarik izango BATZ Taldearekin.

BATZ Taldeko inolako sozietatek ezingo ditu legez kanpo finantzatu ez hautagai politikoak, ez eta alderdi politikoak ere.

Erabat debekatuta dago jatorri publikoko funtsak eta kredituak eskuratzeko BATZ Taldeko Finantza Zuzendaritzaren aurretiko baimenik gabe.

(1) Eragin esanguratsutzat joko da erakunde baten finantza-politikaren eta politika operatiboaren esparruko erabakietan parte hartzeko boterea.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5.4 HIRUGARRENEKIKO HARREMANAK

BATZ Taldeak, bere hornitzaileak hautatzeko prozesuetan, iraunkortasunean eta erantzukizun sozialean oinarrituriko printzipioak aplikatzen ditu, eta jardunbide sozialki arduratsuen aplikazioa sustatzen du erakundearen hornidura-katearen bitartez. Pertsona guztiek, hornitzaile eta bezeroen hautaketa-prozesuetan, kalitate-, egokitasun-, kostu- eta iraunkortasun-irizpideak aplikatu beharko dituzte, betiere BATZ Taldearen interesen alde eginda. Betebehar hori bereziki bete behar dute hornidura eta zerbitzuen kontratazioari buruzko erabakiak hartu behar dituztenek, bai eta Bezerekin egin beharreko eragiketen baldintza ekonomikoak erabakitzen dituztenek ere.

BATZ Taldeak Hornitzaileen Iraunkortasunerako Politika du, non BATZ Taldearen hornitzaileek etika korporatiboaren, ingurumenaren babesaren, baliabideen kontserbazioaren, Giza Eskubideen eta estandar sozialen arabera bete behar dituzten gutxieneko baldintzak jasotzen diren, bai eta BATZ Taldearen hornitzaile guztiek Jokabide-kode hau bete behar dutela ere.

Hornitzaile, Bazkide eta Bezerekin izan beharreko harremanetarako, aplikagarria da Kode honen 5.3. atalean ezarritako Ustelkeriaren Kontrako Politika.

Horrenbestez, ezingo da eman, ezta jaso

ere, inolako eroskeria- edo komisio-motarik Hornitzaile, Bazkide edo Bezerekin izan beharreko harremanetan, eta ezingo zaie eman, ezta haiengandik jaso ere, legez kanpoko edozein abantaila-motarik ondasun edo zerbitzuak erosteko edo kontratatzeke erantzukizuna duten beste enpresa batzuetako pertsonen beren betebeharrak eta legeria urratuta BATZ Taldearen zerbitzu edo produktuak eskuratzea erabaki dezaten.

Lehia askearen, merkatuaren eta kontsumitzaileen babesa

BATZ Taldeak lehia askea ez kaltetzeko konpromisoa du. Hortaz, lehia babesteko araudia beteko du, eta kolusioa, abusua edo lehiaren murrizketa edo prezioen aldaketa dakarren edo ekar dezakeen edozein jokabide saihestuko.

BATZ Taldearen eta haren lehiakideen edo hirugarrenen jarduerari dagokionez, ez du jarduketa desleialik egingo, ez eta publizitate engainagarrikerik edo iraingarrikerik ere.

5. PRINTZPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5.5 INFORMAZIOAREN KUDEAKETA

BATZ Taldea osatzen duten Pertsonen jarduera profesionalean sortutako informazioa (teknikoa, finantzarioa, komertziala, etab.) BATZ taldearen jabetzakoa da, eta, beraz, babestu egin behar da. BATZ Taldearen jabetzakoa ez dena legezko xedapenen arabera erabili beharko da.

BATZ Taldeak duen informazio ez-publikoa, dela euskarri informatikoan, dela beste edozeinetan, Informazio Konfidentzialtzat joko da, oro har. Ondorioz, BATZ Taldea osatzen duten Pertsonak sekretu profesionalaren printzipioa errespetatu behar dute.

BATZ Taldea osatzen duten Pertsona guztiek beren eginkizunetan kudeatzen duten Informazio Konfidentzial ororen konfidentzialtasuna ziurtatzeko betebeharra dute, baita BATZ Taldearen Informazioaren Segurtasunerako Politikaren helburu berak betetzeko ere. BATZ Taldearen helburuen artean badago, era berean, BATZ Taldea osatzen duten Pertsona guztiek informazioa eskuragarritasun-, konfidentzialtasun- eta osotasun-galeretatik babestea, hala nola Informazio Konfidentzialarekin lotutako edozein segurtasun-gorabehera behar bezala jakinaraztea eta kudeatzea.

Horrenbestez, Pertsonak Informazio Konfidentziala ahalik eta zuhertasunik handienaz erabiliko dute, eta behar beste baliabidez baliatuko dira hura babesteko, informazioaren segurtasunari buruzko legeak eta arauak betetzen direla bermatuta. Informazio horren edukia ez zaie hirugarrenei jakinaraziko, kasu bakoitzean

eskuduna den Pertsonak edo BATZ Taldeko organoak berariaz baimendu edo legeak, epaileak edo administrazio-agintariak eskatu ezean.

Informazio Konfidentziala BATZ Taldeak kanpoko hirugarrenena denean, Pertsonak BATZ Taldeak hirugarren horiekin sinatuta dituen konfidentzialtasun-akordioak bete beharko dituzte.

BATZ Taldearekiko lan- edo sozietate-harremana amaituz gero, Pertsonak konfidentzialtasun-betebeharra izaten jarraituko dute, eta dokumentuak eta biltegiratzeko bitartekoak edo gailuak itzuli beharko dituzte, bai eta Informazio Konfidentzialarekin lotuta beren terminal informatikoan gordeta duten informazioa ere.

Herri Administrazioekin, Bezeroekin eta beste edozein hirugarrenekin partekaturiko informazio oro eguneratuta egon behar da, egiazkoa eta zorrotza izan behar da, hala nola langile egokiek osatua, eta indarrean dagoen legeria bete behar du.

Finantza-arloko txostenak, kontuak, balantzeak, kudeaketa-planak, plan estrategikoak eta gainerako informazio finantzario eta estrategikoa BATZ Taldeko Finantza Zuzendaritzaren ardurapean egongo dira. Informazio hori argitaratzeko edo zabaltzeko, organo hori jakinaren gainean egon beharko da eta onartu egin beharko du, BATZ Taldearen Finantza Politikan jasota dagoen bezala.

5. PRINTZIPIO ETIKOAK ETA JOKABIDEARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

5.6. JABETZA INDUSTRIAL – INTELEKTUALAREN BABESA. ENPRESAREN AKTIBOEN ETA BALIABIDEEN ERABILERA ARDURATSUA

BATZ taldeko Langileek garaturiko jabetza industrial edo intelektual babestu beharreko ondarea da, eta ondo erabili beharrekoa.

BATZ Taldeko Pertsonak beren lan-eginkizunak bete bitartean sortzen diren jabetza intelektualaren, industrialaren eta enpresa-sekretuen ustiapen-eskubideak BATZ Taldearen jabetzakoak izango dira.

Era berean, errespetatu egingo dira jabetza intelektual eta industrialari dagozkion eskubideak (egile-eskubideak, patenteak, erabilgarritasun-modeloak, industria-diseinuak, markak, domeinu-izenak eta gainerako eskubideak), bai eta BATZ Taldearekin harremanetan dauden Bezeroen edo beste edozein hirugarrenen enpresa-sekretuak ere.

Pertsonen eskura jartzen diren aktiboak eta baliabideak okereko zuzenbideak erabiltzeak arrisku larria dakarkie hala BATZ Taldeari nola erakundea osatzen duten Pertsonari. Hori dela eta, BATZ Taldeak segurtasun informatikoa

babesteko ahalegina egiten du, eta baimendu gabeko softwarea erabiltzea debekatzen. BATZ Taldea osatzen duten Pertsonak ezin izango dute software maltzurrik instalatu eta erabili erakundearen ekipamendu informatikoetan, ezta legez kanpoko beste edozein programa edo aplikazio informatikorik ere, baldin eta ez badago dagokion erabilera-lizentzia ofizialak babestuta edo BATZ Taldearen edo hirugarrenen sistema informatikoen segurtasuna kalte dezakeen elementuren bat sartzeko arriskua badakar.

BATZ Taldeak bere langileen esku jartzen ditu beren jardura garatzeko beharrezko aktibo eta baliabideak. Pertsona bakoitza arduratuko da haiek zaintzeaz eta bertan sartzeko pasahitzak kudeatzeaz, horretarako garatutako Protokoloak jarraituz. Halaber, BATZ Taldea osatzen duten Pertsonen erantzukizuna da jasotako baliabide informatikoak egokiro erabiltzea, besteren ondasunetan kalterik ez eragiteko, datuak, programak edo dokumentu informatikoak ezabatzea edo baliogabetzea, kasurako.

5.7 BATZ TALDEAREN IRUDIAREN ETA OSPEAREN SUSTAPENA

BATZ Taldeak ospe handia dauka, bere eskarmentu handiari eta talde tekniko eraginkor eta leialari esker, Taldearen kultura osatzen duten Balioekin, Printzipio Etikoekin eta ezagutzarekin konprometitua.

Pertsona guztiek, beren lan-jardura guztietan, ahalik eta arreta handienaz zaindu behar dituzte

BATZ Taldearen irudia eta ospea. Era berean, bermatu egingo dute Hornitzaileek, Bazkideek eta Bezeroek zuzen eta egoki erabiltzen dituztela irudi eta ospe korporatiboa.

BATZGROUP

Torrea, 2 - 48140 IGORRE // T: (+34) 946 305 000
BATZ.COM